# Euskadin ikasten ez dauden 15 eta 24 urte bitarteko gazte langabeen portzentajea Espainiako eta Europar Batasuneko batezbestetik behera dago

2019an, hau da, Covid-19k sortutako pandemia baino lehen, Euskadiko 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 7,2 ez zeuden ikasten, ezta lan egiten ere, beraz, langabezian zeuden eta ez zuten inolako formazio-ekintzarik egiten.

Portzentaje hori Espainian, batez beste, jaso zena (% 12,2) baino txikiagoa zen; izan ere, autonomia erkidego guztien artean Euskadik zuen portzentajerik txikiena. Europar Batasuna osatzen duten 27 herrialdeekin konparatuz gero ere, Euskadikoa batezbestekoaren azpitik dago (% 10,1 da Europako batezbestekoa).

Gainera, 2015 eta 2019 urteen arteko bilakaerak erakutsi digu ikasten ez zeuden langabeen ehunekoa bi puntu baino gehiago murriztu dela lau urteko epe honetan.

**Ikasten ez dauden 15 eta 24 urte bitarteko langabeen portzentajearen bilakaera, Euskadin, Espainian eta 27 herrialdeetako Europar Batasunean**




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eurostaten datuak oinarri hartuta*

Gazteen Euskal Behatokiak egin du azterketa hau eta horretarako Eurostatek, Europako Bulego Estatistikoak, argitaratutako eskualdeetako estatistikak hartu ditu oinarri.